



Arartekoaren ebazpena, 2009ko martxoaren 25koa. Horren bidez, Sondikako Udalari gomendatzen zaio udalerriko auzokide batzuek salatu dituzten jarduera eztabaidagarriak legeztatzeke espedientearekin jarrai dezala.

Aurrekariak

1. Sondikako herritar batek Arartekoari aditzera eman dio udal horrek ez diola erantzun hirigintzako legezkotasuna leheneratzeko udal jardueraren eskaerari.

Kexaren edukiak erreklamaziogilearen etxebizitzatik gertu dagoen eremu batean egindako eraikuntzak aipatzen ditu. Erreklamaziogile horren etxebizitza Artxanda-Enekuri errepidearen (...). zk.an dago. Era berean, eraikinetan ukuiluratzen ari diren animaliak egotea salatzen du, dagokion udal baimenik gabe. Horrek arazoak eragiten ditu.

Kontu horiek udalean 2004ko irailaren 28ko idazkiaren bidez salatu ziren. Idazki horretan, udal zerbitzuek miatu zezatela eta bidezko neurriak har zitzatela eskatu zuen, hirigintzako legezkotasuna leheneratzeko.

2. Erreklamazio hori izapidetzeko onartuta, Sondikako Udalera jo genuen gai honen inguruan jarraitutako jardunei buruzko informazioa eskatzeko.

Erantzunean tokiko administrazio horrek jakinarazi zigun, aurkeztutako erreklamazioaren ondorioz, ekainaren 22ko 373/2006 Dekretua eman zela. Bertan, obren sustatzaileari obra horiek legeztatzeke eta ezkutuko abeltzaintzako ustiategiaren jarduerarekin amaitzea eskatu zitzaion, aipatutako obrak erregularizatu arte.

Hala ere, ondoren, erreklamaziogileak berriz ere Arartekora jo du eta animaliek eragindako eragozpenek jarraitzen dutela eta aipatutako udal ebazpenean agindutako neurriak ez direla burutu salatu du.

3. Hori dela eta, 2007ko ekainaren 11n, Arartekoa berriz ere udalera zuzendu zen aipatutako ebazpenaren betetzean jarraitutako jarduketan inguruan galderak egiteko.

Idazki hori jaso ostean, berriro gogorarazi diogu udalari ez diola erantzun erreklamaziogileak egindako salaketari eta, bereziki, beharrezkoa dela hirigintza-diziplinako espedientearen izapidetzea.





Izapidetze horien baitan udal zerbitzu teknikoetara jo dugu hainbat alditan espediente horren izapidetzearen egoerari buruzko informazioa eskatzeko eta berriz ere erreklamazioaren gaiari buruz udalak garatu izan zitzakeen jardueren bidalketa eskatzeko.

Berriazko erantzunik egon ez denez, erakunde honek berriro gogorarazi nahi dizkio udal administrazio horri hirigintza-diziplinako eskumenez baliatzeak dakartzan betebeharren inguruko zenbait gogoeta.

Gogoetak

1. Erakunde honek esku hartu izanaren arrazoi nagusia izan zen Sondikako Udalak ez ziola erantzunik eman erreklamaziogileak hirigintzako legezketasuna leheneratzera bideratutako neurriak hartzeko egin zuen eskaerari.

2004ko irailaren 28ko bere eskaeran, erreklamaziogileak udalaren esku-hartzea aipatzen zuen, alde batetik, hirigintzako legezketasuna bermatzeko, bere etxebizitzatik gertu dagoen lursail batean auzotar batek egindako obrei dagokionez, eta, bestetik, lursail horretan garatzen den abeltzaintzako jarduerak eragiten dituen arazoak modu eraginkorrean saihestuko dituzten neurriak hartzeko.

Salaketari emandako erantzunean, udalak 2006eko ekainean espediente ireki zuen hirigintzako legezketasuna leheneratzeko eta, modu horretan, obren sustatzaileari proiektua aurkeztea eskatu zitzaion, obra horiek legezkoak izan zitezten eta, edozelan ere, abeltzaintzako jarduerarekin amaitzea agindu zitzaion.

Hala ere, udalak onartu zuen dekretu horren ostean, ez dago jasota obren legalizazioaren espedientearekin jarraitzea eta ezkutuko erabilerekin amaitzera bideratu dagoen ondorengo udal jarduerarik.

2. Adierazi behar dugu udalak ez digula gure bigarren eskaeraren inguruko berriazko informaziorik bidali, erakunde honek errekerimenduak egin arren. Aipatutako eskaeran, berriz ere hirigintzako eta ingurumeneko legezketasuna leheneratzeko espedientearen izapidetzeari buruzko informazio eskatzen dugu.

Horren ildotik, ez daukagu lizentziarik gabe egindako obren kontra jarraitutako ondorengo hirigintza-diziplinako neurrien eta abeltzaintzako jarduerak eragiten dituen arazoak saihestera bideratutako neurrien berri.





Agerian utzi behar dugu, instrukzio izapidetzerik eta administrazio ebazpenik egon ez denez, administrazioak oker jokatu duela.

Espainiako Konstituzioak berak –103.1 eta 105. artikuluetan– aipatzen du prozedurazko izapide batzuk daudela eta herritarrei benetako erantzuna eman behar zaiela. Alderdi horiek Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutuneko 41. artikulua biztanleei ematen dien administrazio egokirako eskubidea osatzen dute (gutun hori Europarako Konstituzioa ezartzen duen Itunak barneratu zuen). Araubide hori gure ordenamendu juridikoan Herri Administrazioaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen bidez barneratu da.

Alderantziz, administrazio txartzat jo behar da artikulua horiek ezartzen duten eginbide funtzionalaren betebeharra urratzea. Betebehar hori aurkeztutako erreklamazioei arazoizko epearen barruan erantzuteko betebeharra da.

Horiek horrela, Arartekoak azpimarratu nahi du beharrezkoa dela partikularrek hirigintzako legezketasuna babesteko aurkeztu dituzten salaketa, eskaera edo bestelako eskabideei behar bezala erantzutea.

Horretarako, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. eta 44. artikuluetatik eratorritzen den araubide juridikoa aipatu behar dugu berriz ere. Artikulu horiek egindako eskaera guztiei erantzuteko betebeharra ezartzen dute. Ordenamendu juridikoak dio berariazko ebazpena eman behar dela prozedura guztietan, horiek hasteko modua edozein dela ere, aurreikusitako epea amaituta egon arren.

3. Hirigintzako diziplinaren alorrean, udal administrazioek jardueren kontrolean eta hirigintzako antolamenduak arautzen dituen egintzen kontrolean esku hartzeko eskumena dute, hirigintzako ikuskapenak eginda eta hirigintzako lizentziak emanda.

Horren ildotik, agintariek eta funtzionarioek ezin diote uko egin hirigintzako diziplinako ahalmenez baliatzeari, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak ezartzen duenaren arabera. Zehazki, bigarren atalean, honakoa azpimarratzen da:





“Titulu honetan araututako ahalez baliatzea utziezina da. Ondorio horretarako, agintariak eta funtzionarioak ahal horiez baliatzeko ezarritako prozedurak hasi eta izapidetzera behartuta daude, kasuan kasu emandako epeen barruan. Betebehar hori ez betetzeak diziplina-erantzukizuna sortuko du.”

Hirigintzako diziplina eta ikuskatzeko ahala udal plangintza eta hirigintzako legezkotasuna zorrotz betetzearekin lotuta daude ezinbestean. Partikularrek jardun ez arren, horrek ez du kaltetu behar hirigintzako legezkotasuna defendatzeko funtzio publiko hori.

Halaber azpimarratu behar dira hirigintza-diziplinako eskumenak baliatzean nagusi den interes publikoa eta esku hartzeko eta ofiziozko prozedura horiek bultzatzeko betebeharra. Era berean, erantzuna emateko betebeharrak eta hirigintzako legezkotasuna berreskuratzeko bidezko neurriak hartzeko betebeharrak salatzailearen eta salatuaren artean egon daitezkeen gorabeheretatik kanpo egon behar dute.

Udal horrek ongi asko dakien bezala, partikularrek egindako lanak eta erabilerak gauzatzeko, beharrezkoa da dagokion lizentzia izapidetzea, hala egin ezean, jarduera ezkutukotzat hartuko baita –219. artikulua–, dagokion legeztatze erregimenarekin.

Esku artean dugun kasuan, Sondikako Udalak salaketa jaso ondoren esku hartu zuen eta hura legezta zedila eskatu zuen. Hala ere, ez zuen erabilera eten eta, ilegalizatzeko epea igaro ondoren, ez zuen hirigintzako legerian aurreikusitako neurririk hartu.

Hori dela eta, udal administrazio hori eman zaizkion ikuskapen, egiaztapen eta kontrol ahalez baliatzeko ezarritako prozedurak hasi eta izapidetzera behartuta dago, kasuan kasu emandako epeen barruan.

4. Beste kontu batzuei helduz, sailkatutako jarduerak dagokien administrazio baimena izan behar dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenaren otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean jasotakoaren arabera edo, hala badagokio, salbuetsitako jardueren 165/1999 Dekretuan jasotakoarekin bat. Zehazki, 65. artikulua lizentziarik gabe sailkatutako jardueren kasuan jarraitu behar den prozedura ezartzen du.





Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, honako gomendio hau egiten da:

3/2009 GOMENDIOA, martxoaren 25ekoa, Sondikako Udalarari egina

Eztabaida sortu duten obrak legeztatzeke espedienteak sustatu eta izapide dezala eta hirigintzako legezkotasuna bermatzeko bidezko neurriak har ditzala, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen VI. tituluak ezartzen duenaren arabera eta, hala badagokio, ingurumeneko legezkotasuna, Ingurumenaren otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean xedatutakoarekin bat etorritz.

